

Ahoztar Zelaieta: "Euskal Herriak garrantzi estrategikoa dauka narkotrafikoan"

© Orain dela ordu bat

Beñat Hach Embarek Irizar

Euskal Herria

Ahoztar Zelaieta (Bilbo, 1972) ikerketa kazetariak hainbat plazetan landu du bere ogibidea. Egin egunkariko ikerketa sailean errepresio eta narkotrafiko gaiak jorratu zituen, eta [Pepe Reirekin](#) batera [Ardi Beltza](#) eta Kalegorrian aldizkarietako kidea izan da. Ustelkeria politikoa izan du lupapean azken urteetan, eta hainbat liburu idatzi. Orain Euskal Herriko [narkotrafikoa](#) du hizpide bere azken lanean: ["El narco-oasis vasco. Capos del narcotráfico y mafias policiales con impunidad política"](#). Lizarrako La Bota peñan liburuari buruzko hitzaldia eskaini baino lehen aritu gara berriketan.



Orain idatzi duzu narkotrafikoaren inguruko liburu bat, baina aspalditik ezagutzen duzu mundu hori.

Bai, Eginen gaia landu nuen, eta Ardi Beltzan "narkotrafikoa eta proxenetismoa" izena zuen sekzio bat neukan. Inoiz ez da niretzako gai arrotza izan. Garai hartan iturri sare bat neukan, 90eko hamarkadatik 2003 arte narkotrafikoan ze mugimendu zeuden jakinarazten zidana.

2003tik aurrera gauzak aldatzen al dira?

Ordutik beste iturri sare berri batzuk egin ditut, aintzinako iturrien bitartez, bai legearen alde batean zein bestean: narkotrafikoan inplikaturakoak, ertzainak, fiskaltzan lan egiten dutenak, epaitegietan... Ez dizkidate soilik testigantzak eman, dokumentazioa ere eskuratu dut. Dokumentazio horrek kontatzen digunaren arabera antzeman daiteke 80. hamarkadan bitartekari lanak egiten zirela Euskal Herrian, bereziki Kolonbia eta Galizako sareentzako. 90. hamarkada amaierarako ja bide alternatibo bat ginen, Galizian eta Andaluzian zarata handia baitzegoen narkotrafikoaren inguruan, presio handia, eta hemen ez hainbeste; EHn bazirudien narkotrafikoa aspaldiko kontua zela, amaitu zen pasarte bat. Milurteko lehen hamarkada erdialdetik hona, ordea, "bide estrategiko" bihurtu gara. Hori niretzat sorpresa handia izan zen, ez bainuen aurreiritzirik topatuko nuenaren inguruan. Polizia iturri eta sumarioek hala azpimarratzen dute bilakaera: bitartekaritik alternatibora, eta alternatibotik estrategikora. Sorpresa hori hartzean erabaki nuen merezi zuela lan sakon bat egiteak, datuak eta frogak bildu eta publikatzea.

Egilea



[Beñat Hach](#)

[Embarek](#)

[Irizar](#)

Mairua naiz behelaino artean.

ZUZEU

orainkarian erredakzioko kide;

Bertsolari.eus aldizkarian

koordinatzaile.

Goierri.

Sarrera berriak



[Urtarrilak 30, greba orokorrerantz Euskal Herrian](#)



[Ahoztar Zelaieta: "Euskal Herriak garrantzi estrategikoa dauka narkotrafikoan"](#)



[Jokin Arrospide: "Nekazaritzarekin hanka sartze historikoak egin dira"](#)



[\[Txiorik Onena\] 2020ko 4. astea](#)

Liburuaren bigarren edizioa kaleratu duzue jada. Antzematen zenuen gaiak interesa piztuko zuela?

De Miguel auziari buruz idatzi nuen liburuarekin pentsatu nuen ustelkeria politikoaren gaiarekin sabaia ukitu nuela. Nire burua gehiegi entzuten nuen horri buruz hizketan, zazpi urte liburu ezberdinekin eta oholtzaz oholtza... eta pentsatu nuen agian irakurlea bera aztoratzen ari nintzela, gaindosi bat eragiten. Nire burua frogatzeko moduko ikerketa bat egin nahi nuen, eta narkotrafikoa gai aproposa iruditu zitzaidan. Txalapartak liburu bat atera zuen, "Al pie del caballo", eta EITBn 360º programak izan duen audientzia altuena "Narcos y guerra sucia" atalarekin izan zen. Pentsatu nuen eztabaida horri aurre egiteko ordua zela, baina ez 80. hamarkadan gertatutakoen nahasketa bat eginez; eta aipamena merezi du garai harek, aitzindari batzuk izan zirelako, Pepe Rei edo [Txus Congil](#), bidea bakarrik egin zutenak. Gaurko iruditeri sozialean pisu handiagoa daukate narkotrafiko istorioek, baina beti Galizian zentratuta, edo Italian, Mexikon... Nire helburua Euskal Herrian bizitako bilakaera kontatzea zen.

Liburuaren abiapuntua amu ederra da: bilbotar bat Estatu Batuetako mafia italoamerikarrean sartuta...

Pertsona hori existitzen da, FBIk ikertu du eta baita Guardia Zibilak ere. Pentsatu nuen erakargarritasuna sortzeko errekurtsioak erabili behar nituela, iruditeri sozialean sonatuak diren baliabideekin: denok kokatzen ditugu gehiago edo gutxiago Galiziako eta Italiako mafiak, Pablo Escobar, Al Capone, El Padrino ikusi dugu... Baina EHko sareak ez ditugu irudikatzen, ez da horri buruzko Teleberririk izan, ez erreportajerik... Estatu Batuetako mafia italiarrean bost familia nagusi daude, eta birekin aritu da elkarlanean bilbotar hau: Lucchese eta Bonanno. Pentsa, bilbotar bat italiako mafiaren gortean printzipe. Bere bitartez aurkezten ditut liburuan euskal capoak.



Zein da egun narkotrafikoaren inguruko botere harremana EHn?

Galizia aztertuz gero hainbat gauza ikusiko ditugu: sareak dispertsatu egin dira, capo historiko batzuk daude, capo horiek espetxetik pasa dira, liburuak argitaratu dira, telesailak... baina EHkoak ez. Haien anonimotasunari esker ibilbide kriminal luzeagoa izan dute. Batzuk estatuko aparatuekin harremanak izan dituzte historikoki, eta bizirauten dute. Baina Galizian bezala heme ere sareak automatizatu egin dira, ez daude dena kontrolatzen duten hiruzpalau, autonomoak sortu dira. Batzuetan elkarbizitza dago sare historikoen eta autonomoen artean, eta beste batzutan talka egiten dute. Baina niretzat hemengo elementu garrantzitsuenetakoak narko-konfidenteak eta narko-agenteak dira. Beraien bizitza ere askoz ere luzeagoa da, Galiziako totemek EHrekin sortutako sare batzuk 40 urte daramatzate lanean (Galizian jomugan zeuden, hemen ez). Askok sofistikatu dira.

Autonomoek batzuetan biolentzia erabiltzen dute merkatu berriak eskuratzeko, kristorenak eta bi egiten dituzte eta hedabideetan agertzen dira. Historikoen ez dute horren beharrik, estatuaren aparatuek atzetik dauzkatelako. Droga kontuekin beti etorkinak izan dira hedabideen jomugan, baina poliziaren dokumentazioan ikusi daiteke hemengo capoak jo eta ke aritu direla lanean.

Sakondu dezakegu aipatu dituzun bi profil horietan? Narko-konfidentea eta narko-agentea.



Harreman ireki egoki eta iraunkorra izateko sekretua

EHko sareak loditzeko ezinbestekoak dira konfidenteak. Galizian eta Andaluzian 10-15 urteko ibilbidea izaten dute, eta Euskal Herrian 40 urtekoa izan daiteke. Narko-konfidenteek harremana daukate estatu aparatuekin, eta haien baimena dute narkotrafiko sareetan murgilduta ibiltzeko. Batzutan informazioa pasatzen diote poliziarri. Beste batzuetan poliziak erabiltzen ditu sare batzuk atzemateko. Baina era berean ezinbestekoak dira sareak loditzeko.

Estatistikekin alderatuz gero ikusiko dugu EHN askoz ere narko-agente gehiago daudela, eta horrek halako "estatu-arrazo" batean bilakatzen du narkotrafikoa hemen. EHko narkotrafikoari aurre egiten badiozu narko-agente pila bat agertuko zaizkizu. Badaude agente batzuk narkotrafikoarekin eta gerra zikinarekin nahastuta ibili direnak. Baina badaude ere agente batzuk hemen "karrera" egin dutenak inoiz ikertuak izan gabe, eta ondoren Galiziara edo Andaluziara joatean ikertuak izan direnak. Badu halako pedigree bat hemen karrera egin izanak.

El Narco-Oasis Vasco liburuaren aurkezpena



KK Inzonaren bideoa

Nola aldatu da narkotrafikoan dabilen jendearen egoera borroka armatuaren amaieraren ondotik?

ETAk gerra deklaratu zien mafiei, batzuk hil zituzten, eta beraz, mafia horiek existitzen ziren jada. Foko guztia ETAn zentratu da: nobela beltza, teleberriak, nota polizialak, errekurtsio judizialak... Hori faktore bat izan da narkotrafiko sareak indartzeko, 80ko hamarkadatik hona loditu egin dira. Ustelkeriarekin antzekoa gertatzen da, Euskal Herrian ez dago tresnarik ustelkeria ekiditzeko, epaile eta fiskalek ez daukate, Ertzaintzak ez dauka unitate berezitu bat ustelkeria ikertzeko, alderdi batzuen aldetik ez dago borondaterik inizatiba parlamentario batzuk bultzatzeko ustelkeria ekidite aldera... Narkotrafikoarekin berdina pasa da. Ez da gai honetaz arduratzeko asmorik izan. Orain esaten dute ETA desagertu zenetik narkotrafiko sare horiek azaleratzen ari direla, baina noski, ez dira atzo jaiotako sareak, kontua da orain errekurtsio gehiago bideratzen ari direla haien kontra.

Ustelkerian badirudi biktima oso lausoa dela... zergak ordaintzen dituen herritarra edo... Baina narkotrafikoaren biktimak garbi identifikatzen dira: epaileen seme-alabak, EAJkoenak, ertzainen anaiak, ETAkoen arrebak, klase altuko zein langile familien seme-alabak... Oso populista da erakustea narkotrafikoaren kontra zerbait egiten ari zarela. Baina gertatzen dena da aspaldian ez denez ezer egin loditu egin direla. Kolonbian egon da gerrillaren aurkako borroka, baina drogen aurkakoa ere. Hemen ez, hemen dena ETAREN aurka fokalizatu da. Bestalde, teoriko batzuek ETA narkotrafikoarekin nahastu nahi izan dute, baina Alfredo Perez Rubalcaba berak (ETAren hurbilekoa izateagatik batere susmagarria ez zena) adierazi zuen horren inguruan ez zegoela inongo frogarik. Euskal Herriko elkarte askok, biktimen familiekin, gazte erakunde ugari, fiskal eta epaile batzuk, kazetari batzuk, aktibista sozial batzuk... badakite narkotrafiko sareak aspalditik dabilzala hemen lanean. Garai batean Pepe Reik gaiari buruzko lan asko egin zuen. Bakarrik. Orduan adierazi zuen narkotrafikoak lotura zuela PPrekin, eta egun inork ez du zalantzan jartzen. Txus Congilek, [Askagintzako](#) bozeramaile izandakoak, hil baino lehen aipatu zuen 80ko hamarkadako narkotrafiko sareak 2000. urtearen ondoren aktibo jarraitzen zutela. Aditua denak badaki sare horiek aspalditik daudela eta indartu direla.



Ahoztar Zelaieta
@Ahoztar1972



"El narco-oasis vasco"

m.publico.es/politica/21270...argia.eus/albistea/narko...

Aurkezpenak bultzatzeko. Para organizar presentaciones:

azzamakona@gmail.com

695259745



"Euskal-fariña": un libro de investigación relata la historia del ...

El periodista Ahoztar Zelaieta publica un trabajo que describe el funcionamiento de la redes del narcotráfico en Euskadi y sus

m.publico.es

94 9:04 AM - Dec 9, 2019



93 people are talking about this



Ze droga mugitzen da bereziki?

Batez ere Kolonbiako kokaina. Lehen Kolonbiatik Galiziarara eta Galiziatik Europara mugitzen zen; azken urteetan Euskal Herriak hartu du funtzio hori. 1988 urtetik 2019 urtera harrapatu diren droga kantitate handien zerrenda bat egin dut, eta hor beti ikusten da Euskal Herriaren presentzia. Galizian eta Andaluzian presio polizial, judicial, mediatiko eta sozial handia dago, eta hemen ez; sare internazionalak hutsune hori probestu dute. Kolonbiatik Europarako zubi zuzena bilakatu da Euskal Herria.

Itsasoa da gakoa, beraz.

Zerrenda horretan ikusten da lehen sarea inmigrazio ilegalarena izan zela, portugaldarrak bereziki. Sare bat zegoen Galiziatik Europara, eta Euskal Herriak rol garrantzitsu bat jokatzen zuen. Gerora ibilbide horiek tabakoa mugitzeko erabili ziren, eta kamioiak inmigrantez beteta etorri beharrean tabakoz beteta etortzen ziren. Tabakotik hatxisera, kokainara eta heroinara pasatu ziren, legeak aldatu zirelako. Lehen tabakoaren kontrako legeak oso arinak ziren, baina hauek gogortu ahala kamioilariari berdin zitzaion tabakoa edo kokaina eramatea, zigorra berdina zelako.

Hemen izan da "euskal pedigri" bat izan duen droga: speeda. Narkotrafikanteak ohartu ziren hemen bazela speed merkatu inportante bat, eta sartu egin ziren. Garai batean sare automatizatu batzuk zebiltzan lanean laborategi txikiekin, eta orain jada maila industrialean egiten da.

Lehen modus operandia honakoa izaten zen: itsasontzi handi bat hurbiltzen zen kostatik ez dakit zenbait kilometrotara, eta arrantzontziak inguratzen zitzaizkion karga jaso eta lurrera eramateko. Kamioiak ere asko erabili dira. Baina globalizazioaren eta narkotrafiko sareen sofistikazioaren ondorioz itsasontzietako kontenedoreak eta hegazkinak ere jokoan sartu dira, baita helikopteroak ere. Sofistikazioak esan nahi du sare zaharrak eraberritu egiten direla lehiakorrak izateko. *Deep web* eta antzeko errekurtsu teknologikoak erabiltzen dituzte, radarrak eta bestelako kontrol polizialak (telefonía) ekiditeko.

Nola zuritzen dute drogatik ateratzen duten dirua?

Irabaziak bideratzeko ezinbesteko kolaboratzaileak dituzte, horien artean bankuak. Pablo Escobar berak erabili zuen BBV, ondoren BBVA izango zena, bere dirua zuritzeko, baita Kolonbiako beste capo totemizatu batzuk ere. Operación Nécora-ko inplikatuak (Laureano Oubiña, Marcial Dorado...) ere BBV erabili zuten. Andaluziako Operación Pitón-en ere BBV agertzen da. Baina BBV zena BBVA denetik ere dirua zuritzeagatik ikertuak izan dira Perun, Argentinan, Kolonbian, AEBtan, Mexikon... Multak ere jaso ditu euskal banku honek. Capoek ez dute dirua beraien jauregien azpian lurperatuta

izan nahi arratoiek jan dezaten, bankuak behar dituzte dirua zuritzeko, paradisu fiskaletan lan egiteko, pantaila-enpresak sortzeko... Ez dago BBVAko inor kartzelan narkotrafikoagatik. Benetako narko handiek ez dute kartzelan amaitzen.

Paradoxikoki hemengo Barne Produktu Gordinean narkotrafikoaren diru sarrerak kontatzen dira, eta horri esker ere BPGa handitu egin da azken urteetan (prostituzioarenak ere onartuak daude). Narkotrafikoak EAEko BPGari urtero-urtero Ertzaintza osoaren aurrekontuan dagoena baino diru gehiago ematen dio. Zenbat diru uzten du Burger Kingek BPGan? Zenbat diru ematen dute instituzioek elikagai osasuntsuak publizitzatzeko? Antzekoa gertatzen da drogekin.

Hori EAEn. Eta Nafarroan?

Hartu kontutan BPGaren kontu honetan izan ezik gainontzean Euskal Herri osoaz mintzo naizela, EAE, Nafarroa eta Iparralde. Euskal diaspora ere azaltzen da tarteka, euskaldun batzuk capo internazional bezala aurkeztuak, pentsa... Baina hemen ez dakigu ezer horri buruz.

Nafarroan garbi ikusten da konfiskatzen den droga kantitatea oso txikia dela, EAEREkin alderatuz. Geografikoki ere faktore batzuk hartu behar dira kontutan, Nafarroak ez baitu itsasporturik, baina droga Europara iristeko bidearen parte da. Liburuan aipatzen dut Nafarroko sareek ze harreman duten EAE eta Iparraldekoekin.

Muga eta errepide azpiegitura dira faktore garrantzitsuenak, puntu geografikoa. Horretaz aparte kontutan hartu behar da mafia bakoitzak ez duela soilik bere produktua merkatuan, baita bere eraginpeko zonalde geografikoa ere. Nafarroan gatazka gutxi dago droga munduan, eta horrek esan nahi duena da badaudela narkotrafikoa kontrolatzen duten botere zehatz batzuk, konpetentziarik gabe. Iritzi publikoan ere zarata gutxiago izan da. Adibidez, Nafarroan ez da egon [Luis Navajas](#) kasurik, edo narkotrafikoaren inguruko makrosumariorik. Gutxi hitz egiten da narkotrafikoaz Nafarroan, agian kontrabandoak itzala egiten diolako. Koiuntura sozial batzuetan kontrabandoa erromantikoagoa eta onargarriagoa da, eta hor lokalizatu da dena.



Baina Espainia Europar Batasunean sartu zenetik, kontrabandoak jada ez du pisurik...

Bai, eta Galizian bezala Euskal Herrian, kontrabando sareek narkotrafikora egin zuten jauzi. Nafarroako kontrabando sareek harremana izan dute narkotrafikoarekin, eta narkotrafiko sare garrantzitsuenetako bat bi nafarrek daramate. Narko-helikopteroen aurkako operazioan jakin zen helikopteroen baseak Gipuzkoan eta Nafarroan zeudela.

Baina honi buruz ez da hitz egiten, ez dagoelako horretara dedikatzen den kazetaririk. Galizian eta Andaluzian pila bat daude, eta zenbait hedabidetan badaude konstantzia bat mantentzen duten linea editorialak, baita koherentzia bat ere, botereak ezkutatu nahi duena azalerazten... baina Euskal Herrian ez.

Nik uste dut ez dugula ispilu aurrean jarri nahi. Osakidetzak bere azken informetan dio EAEko herritarrak Europako droga kontsumo maila altuenetan gaudela; eta psikiatria arloan lan egiten duten mediku asko aztoratuta daude heroinaren gorakadarekin. Euskal Herrian bada gaixotasun guztiak Espainian kokatzen dituen autokonplazentzia bat: ustelkeria, narkotrafikoa, ludopatia... Ez da bakarrik instituzioen hutsunea, herritarron interes falta ere hor dago. Gero bakoitzak bere familian drama partikular bat dauka, baina ez da hortik ateratzen. Herriz herri ezagunak dira narkotrafikanteen izenak, baina herrian geratzen dira. Euskal-oasiaren ideia atzean autokritika falta handia dago. Aspaldi ez dela mobilizazio sozial handi bat egin narkotrafikoaren kontra... ustelkeriaren aurka ere ez, epai bat eman da, adierazpen batzuk izan dira, kazetaritza lanen bat, eta punto. Jokuarekin berdin, "El libro blanco del juego" liburuak aipatzen du euskal herritarrak garelako lehenengoak jokuan dirua gastatzen. Hemen lokal mordoa dauzkagu eta ez dakigu nortzuk diren jabeak, ze politikariek daukaten zerikusia eta nork babesten dituen, ze enpresa dibertsifikatu dituen... Azalean gelditzen gara. Apustu-etxe bat jarri badute gure auzoan protesta pare bat egiten ditugu eta punto, ez dago ikerkuntza sakonik, nahiz eta Champions Leaguen gauden guztian: jokua, prostituzioa eta narkotrafikoa.